

UPV/EHUko funtzionario izatera iristeko ohiko prozesuan merezimenduak alegatzeko gida.

Merezimenduak eskatzeko inprimakia

| | |
|---|-------------------|
| UPV/EHUko funtzionario izatera iristeko ohiko prozesuan merezimenduak alegatzeko gida | 1 |
| Merezimenduak eskatzeko inprimakia | 1 |
| 1. Identifikazioa | 2 |
| 2. Alegatutako merezimenduak | 2 |
| Merezimendu profesionalak. Gehienez: 9 puntu | 3 |
| UPV/EHUen emandako zerbitzuak | 3 |
| Beste unibertsitate batzuetan edo Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuak | 3 |
| Merezimendu akademikoak | 4 |
| Titulu akademikoak | 4 |
| Hizkuntzak: ingelesa, frantsesa eta alemana | 4 |
| 3. EUSKARA | 5 |
| 4. DATA ETA SINADURA | 5 |
| 5. DATU PERTSONALEN BABESA | 6 |
| 6. MEREZIMENDUEN ESKARIA AURKEZTEA | 6 |
| LABURPENA | 6 |

Merezimenduak eskatzeko inprimakia

Eduki hau informatiboa da soilik, eta lagungarria izan nahi du UPV/EHUko funtzionario izatera iristeko ohiko prozesuan merezimenduak alegatu eta aurkezteko. Inprimakia UPV/EHUren webgunean dago eskuragarri.

Lehiaketa-fasean oposizio-faseko azterketa behin-behinean gainditu duten pertsonen parte hartuko dute, baina soilik 17,5 puntuko gutxieneko nota lortu dutenak sartuko dira dagozkien lan-politsetan.

Aurkezteko epea hamar egun baliodunekoa da, emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lortzen den kalifikazioa merezimenduen baremoari esleitutako puntuen baturak zehaztuko du, eta guztira lor daitekeen gehieneko puntuazioa 9 puntukoa izango da (oposizio-fasearen % 45).

Nahikoa da inprimaki bakarra izatea pertsonak oposizio-fasea gainditu duen prozesu guztietarako.

Prozesua formularioko atal bakoitza urratsez urrats betetzean, alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztean, formularioa elektronikoki edo eskuz sinatzean eta unibertsitateari ezarritako epean aurkeztean datza. Egiaztapena formularioari dokumentazio eskaneatua edo kopia sinplea erantsita egiten da, aurkezteko erabilitako bidearen arabera, elektronikoa edo presentziala.

Aurkezteko lehentasunezko modua elektronikoa da, UPV/EHUren egoitza elektronikoaren bidez prozeduren katalogora joan eta [EPE AZP 2022. Dokumentazioa aurkeztea](#) hautatur

“EPE AZP ohiko prozesuaren merezimenduen aurkezpena” [gida](#) du egoitza elektronikoan. Ziurtagiririk ez badago, Administrazio Publikoekiko herritarren arteko harreman elektronikoetan duen erabilgarritasunagatik lortzea gomendatzen da. BAKQ bidez sartzeko, IZENPEren herritar-txartel birtuala deskargatu behar da. Sektore publikoko edozein erakunderen erregistro elektronikoetan ere aurkeztu ahal izango da, baita Correos-en ere.

Bide elektronikoen bitartez identifikatzeko aukerarik izan ezean, aurrez aurre ere aurkeztu ahal izango da eskabidea UPV/EHUko erregistroen arreta bulegoetan, [hitzordua aurretik hartuta](#).

Inprimakiak bost atal ditu:

- Identifikazioa
- Alegatutako merezimenduak
- Euskara
- Data eta sinadura
- Datu pertsonalen babesari buruzko klausula

1. Identifikazioa

Inprimakiaren lehen atalean, datu pertsonalak adierazi behar dira. Markatu identifikatzeko bideari dagokion laukia (NAN, Pasaporte edo AIZ), eta bete eremu guztiak.

IDENTIFIKAZIOA: Dokumentu-mota Dokumentu-zenbakia

NAN Pasaporte AIZ

Izen Abizenak
posta elektronikoa Telefonoa
Helbidea
PK Udalerria LH/Probintzia

Deialdi espezifikoa Adierazi merezimenduak baloratzea nahi duzun beharezko notarekin gainditutako deialdi guztiak

"Deialdi espezifikoa" eremuan eremu librean deskribatuko dira oposizio-fasea gainditu duten deialdi GUZTIAK.

2. Alegatutako merezimenduak

Deialdi bakoitzaren oinarrietan jasotako merezimenduak soilik hartuko dira kontuan. Garrantzitsua da deialdi bakoitzaren [oinarri espezifikoak](#) irakurtzea.

Atal honetan bi azpiatal daude: Merezimendu profesionalak eta Merezimendu akademikoak.

Merezimendu profesionalak.

UPV/EHUn emandako zerbitzuak.

UPV/EHUn Zerbitzuak eman badira, nahikoa da dagokion laukia markatzea. UPV/EHUK ofizioz egiaztatuko ditu.

| |
|--|
| AGERTUTAKO MEREZIMENDUAK |
| MEREZIMENDU PROFESIONALAK |
| Herri-administrazioetan emandako zerbitzuak |
| Egindako zerbitzuen denbora deialdi espezifiko honti lotzea erabaki dut.* |
| <small>* A eta/edo B taldeetako funtzionarioen plazetarako deialdi espezifiko batera baino gehiagora aurkeztuz gero.</small> |
| <div style="background-color: #e0e0ff; border: 1px solid black; height: 20px;"></div> |
| Deialdi espezifiko honetan alegatzen diren emandako zerbitzuak (3.1 oinarri espezifikoa)UPV/EHU <input checked="" type="checkbox"/> |

Beste unibertsitate batzuetan edo Administrazio Publikoetan emandako zerbitzuak

Berriaz adieraziko da zer Unibertsitate edo Administrazio Publikotan eman diren zerbitzuak. **EZ** da beharrezkoa kontratazio-aldiak adieraztea. **Adibidea:**

Bestelako unibertsitate edo herri-administrazioetan emandako zerbitzuak

Adieraz ezazu zein administrazioan edo Unibertsitatena eman duzun zerbitzuak

Osakidetza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Errenteriako Udala

Unibertsitate edo Administrazio Publiko kontratatzaileen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira emandako zerbitzuak egiaztatzeko (salbu eta UPV/EHUK hirurteko gisa aitortuta baditu). Ziurtagirian xehatuta agertuko da lan egindako denbora, aldi bakoitza zein talde eta eskalari dagokion zehaztuta.

Gainera, ziurtagiri horrekin UPV/EHUK ezin badu ondorioztatu emandako zerbitzuak bat datozela UPV/EHUKo lanpostuen zerrendarekin, Epaimahaiak interesdunari eskatu ahal izango dio lanpostuen monografiak edo funtzioen ziurtagiriak aurkez ditzala (langileen kudeaketaz arduratzen den organoak emandakoak).

Merezimendu akademikoak.

Se alegarán las titulaciones académicas distintas a la alegada para el acceso y que son valorables de acuerdo a las Bases Específicas de cada Escala, así como de los siguientes idiomas no oficiales en la Comunidad Autónoma del País Vasco: francés, inglés y alemán.

Titulu akademikoak.

Deialdi bakoitzean merezimendu gisa baloratu daitezkeen titulazioak alegatu eta aurkeztuko dira. Titulurik eskuragarri ez badu, alegatu nahi den titulua justifikatzeko balio duen agiriren bat aurkeztu beharko du. Honako hauek izango dira dokumentu baliagarriak:

- Titulua eskuratzeko zenbatekoa ordaindu izanaren egiaztagiria.
- Titulua eskuratzeko eskubidea egiaztatzen duen agiri akademikoa.

MEREZIMENDU AKADEMIKOAK

1. Titulazio akademikoak Aurretik aurkeztu ez bada, ziurtagiria aurkeztu behar da.

Hizkuntzak: ingelesa, frantsesa eta alemana.

Europako Marko Bateratuko C2, C1, B2 eta A2 mailak hartuko dira kontuan.

UPV/EHUKo errektoreak 2021eko martxoaren 8an emandako Erabakia, hizkuntza ez-ofizialen baliokidetasunari buruzkoan (Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordearen 2017ko maiatzaren 22ko Erabakiaren bidez eguneratu zena), maila bakoitzerako jasotzen diren tituluak eta ziurtagiriak baino ez dira baloratuko.

Hizkuntza ez-ofizialen merezimendua egiaztatzeko, mailarik handieneko titulua edo egiaztagiria aurkeztu beharko da eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Adibidea: Interesdunak ingeleseko C1 Advanced maila eta alemaneko A2 maila alegatu ditu:

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea


2. Hizkuntzak

| | |
|-----------|---|
| Ingelesa | C1 <u>Advanced</u> |
| Frantsesa | |
| Alemana | A2 Donostiako hizkuntza eskola ofiziala |

3. EUSKARA

Instantzien epea bukatzean euskarari dagokionez duen mailarik altuena adieraziko da.

Adibidea:



EUSKARA

Nivel de Euskera alegado.

B1 HABE

Egiaztagiri bat aurkeztu beharko da kasu honetan: - ETZEBn sartuta ez dauden tituluak edo ziurtagiriak. Kontsultatu [hemen](#) titulua edo ziurtagiria Erregistroan jasota dagoen ala ez eta, hala badagokio, aurkeztu eskariarekin batera.

Deialdia egingo zaie oposizio-azterketaren erantzun-orrian hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba batera egiaztatu beharreko hizkuntza-eskakizuna markatu zuten pertsoneri. Proba hori bakarra da 2019, 2020, 2021 eta 2022ko EPEko prozesu guztietarako.

4. DATA ETA SINADURA

Bukatzeko, adierazi data, lekua eta sinadura.

Bitarteko elektronikorik eduki ezean, eskuz sina daiteke inprimakia, eta dokumentazioa aurrez aurre aurkeztu.

5. DATU PERTSONALEN BABESA

Datu pertsonalak babesteari buruzko klausula jasota dago, UPV/EHUn hautaketa prozesuak egin eta lanpostuak betetzeko orduan aplikatzekoa den araudia betez. Informazio osagarria unibertsitatearen webgunean dago: <https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/-/tg0009>

6. MEREZIMENDUEN ESKARIA AURKEZTEA

Aurkezteko lehenetsuneko bidea elektronikoa da, UPV/EHUren egoitza elektronikoaren bidez: <https://egoitza.ehu.eus/es/registro-electronico>.

Begiratu merezimenduak elektronikoki aurkezteko [prozedura-gida](#). Horretarako, ziurtagiri digitala erabili behar da, dokumentuak sinatu beharko baitira. BAKQ bidez sartzeko, IZENPEren herritar-txartel birtuala eta Autofirma aplikazioa deskargatu behar dira. (<https://firmaelectronica.gob.es/Home/Descargas.html>).

UPV/EHUren egoitza elektronikoan sartzeko [baldintza teknikoak](#) eta erabilgarri dauden gidak INFORMAZIOA atalean daude.

LABURPENA

Egin beharreko izapidea honako urrats hauetan laburbiltzen da:

1. Inprimakia betetzea eta egiaztatu beharreko merezimenduei dagokien dokumentazioa prestatzea, oinarrietan adierazitakoa betez eta gida honen laguntzaz.
 2. UPV/EHUren egoitza elektronikoan ziurtagiri digitala edo NANA sartzea. Edo deskargatu herritarren txartel birtuala BAKQ eta Autofirma bidez sartzeko
 3. Dagokion izapidean sartzeko, egoitza elektronikoan sartu behar da, prozeduren katalogora joan eta [EPE AZP 2022. Dokumentazioa aurkeztea](#) hautatu. Sartu harremanetarako datuak eta jaso nahi dugun jakinarazpen mota. Elektronikoa izan dadin, helbide elektroniko bat eman behar dugu.
 4. Eskariaren datuak betetzea eta emandako datuen egiazkotasuna adierazteko laukitxoa markatzea. Xede unitatea, AZPko Langileak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko atala, aukera lehenetsia da.
- Hurrengo urratsean dokumentazioa erantsi behar da eskarian, baita sinatu eta bidali ere.
5. Dokumentazioa UPV/EHUko erregistroen arreta bulegoan aurkeztuz gero, hitzordua hartu behar da aurretiaz. Sinatutako inprimakia eta aurkeztu nahi den dokumentazioaren konplia soilik eraman behar dira.

Deialdiari buruzko kontsultak: pas.seleccionyprovision.viceg.personal@ehu.eus

Egoitza elektronikoaren funtzionamenduari buruzko kontsultak: e-administrazioa@ehu.eus

Komeni da izena emango duen pertsonari interesatzen zaizkion deialdietako oinarri orokorrak nahiz espezifikoak arretaz irakurtzea, bertan jasota baitaude hautaketa prozesuen alderdi guztiak arautzen dituzten alderdi guztiak.

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoak:

http://www.ehu.es/oficinas_registro.html

Alegazio-formularioa eta, hala badagokio, merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa posta-bulegoetan aurkezten dutenek UPV/EHUko gerenteari zuzendu beharko diote eskaria eta 10.2 oinarrian adierazitako helbidera bidali, eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. art.).